



KALINPAN ERABILTZEKO GIDA

KALINPAN ibili, izerditu eta edan

Kirola praktikatzen ari garela nekatu egiten gara, izerditu, batzuetan lehertu. Baina horrek guztiak konponbidea dauka orain: izan ere, Bermeok freskagarri berria dauka, KALINPAN izenekoa. Edari isotoniko honek egarria asetzen du, haren burbuilek indarra bikoiztu egiten dute, kontzentrazioa zorroztu eta aurrera egiteko gogo sortzen du. Baina KALINPAN edaria baino gehiago da... Kalinpan kirolaria da.



KALINPAN herriko kirol elkarten konplizea edo laguntzailea izango da; antolatutako kirol ekitaldietan, sariak banatzen lagunduko digu, gure taldea animatzen... Zuek nahi duzuen. Zein helbururekin? Kirolari eta herritar guztiak ikus dezaten, kirola egitea ona dela, eta ez dugula inongo arazorik kirola euskaraz ere egiteko.

KALINPAN maskotarekin batera, pegatinak, diptikoak eta beste euskarri batzuk ere banatu ahal izango ditugu.

ZER EGIN BEHAR DUGU KALINPAN GURE LAGUNA ERE IZAN DADIN?

Erraza da:

- Udaleko Euskara Sailean **gure interesa adierazi** beharko dugu (idatzi: euskera@bermeo.org; edo deitu: 94 617 9122)
- Herriko beste **kirol elkarteekin ados** para beharko dugu, egutegia egiteko eta KALINPAN txandaka erabiltzeko. Horretarako, gure urteko ekintzen egutegia utziko dugu euskara sailean.
- Udaleko Euskera sailean **hartuko eta utziko dugu KALINPAN**: kirol elkartearen ardura izango da behar duen egunerako hartzea eta, ahal dela, egunean bertan edo hurrengoan utziko da Euskara Sailean.
- **Arazoren bat izanez gero** edo zerbait apurtuz gero, Euskera Sailari jakinarazi beharko zaio.



NOIZ ERABILI BEHAR DUGU KALINPAN?

- Sariak banatzerakoan
- Gure taldea animatzeko
- Ekitaldian berba egiteko
 - Triptikoa/orriak banatzerakoan
 - Tiketak saltzeko
 - Zuek nahi duzuean



Norbaitek mikrofona erabiliko badu, KALINPANek berba ere egin lezake, bai zuek nahi duzuegerako, bai kirola eta euskara bera lotzeko ere. Gainera, nahi izanez gero, testua prestatzen lagunduko dizuegu.

KALINPAN ERABILTZEKO BALDINTZAK

Kalinpan erabili ahal izateko, ekitaldian euskararen presentzia bermatu beharko da:

Esatariak euskaraz hitz egingo du
Ekitaldiaren publizitatea euskaraz egingo da
Ekitaldian erabiltzen diren kartelak euskaraz egongo dira
Esku-orriak euskaraz egingo dira

Horrez gain

Elkarteko kideren batek ardura hartu beharko du, ekitaldian zehar, Kalinpanen barruan sartzeko
Ekitaldian zehar argazki bat aterako dio elkarte antolatzaileak Kalinpani eta euskara sailera bidaliko du: euskera@bermeo.org

Irizpide hauek aplikatzeko orduan laguntza behar baduzue, Euskera Sailarekin harremanetan jar zaitezke.

- Urdaibai Arraun elkarte
- Xixili gimnasia taldea
- Taraska atletismo taldea
- Sollube 707 mendi taldea
- Artza pelota elkarte
- Txirrindularitza taldea
- Aritzatxu triatloi taldea
- Bermeoko Ehiza, Arrantza eta Tiro elkarte
- Alejandra Ispizua (gimnasia)
- Bingen Arostegi (futbola)
- Izaskun Mugika (eskubaloia)
- Izortz Zabala (arrauna)
- Joseba Kerejeta (urpeko arrantza)
- (...)

ZUK ERE KALINPANEN LAGUN IZAN NAHI DUZU? Beraz, badakizu,

Ibili

kirolean ibili eta, bide batez, euskaraz ere erabili

Izerditu

kosta ahala kosta, nekez edo errez

Edan

Ase zure egarria, euskararena ere bai

Taraska